

BIRMOLDAKETA ESPAINIAN: 1983TIK GAUR ARTE

Mikel Navarro Arantze

E.S.T.E.ko irakaslea

Palabras clave: Reconversión industrial, política industrial, sectores económicos.
Nº de clasificación JEL: L52, L7, O14.

1. PSOE-KO GOBERNUAREN BIRMOLDAKETAKO POLITIKA

1982ko bukaeran eratu zen aurreneko gobernu sozialistak arlo honetan egin zuen lehendabiziko gauza, ordura arte burututako birmoldaketako politika aztertzea izan zen, horren emaitza Liburu Zuria izan zelarik. Ondoren, aipaturiko liburuan jasotako birmoldaketa-eskema gizarte-indar batzuekin eztabaidatzeari ekin zion. Baina sindikatuen adostea lortzen ez zela eta birmoldaketak atzerapen handia zeramala ikusiz, 8/1983ko azaroaren 30eko lege-dekretuz bere proiektua onartzea erabaki zuen, urte bete beranduago, zenbait aldaketaz, 27/1984ko uztailaren 26ko legea bihurtu zena.

Liburu Zuriak erakutsi zuenez, funtsezko sektoreetan (siderurgian, elektrarresnetan eta untzigintzan batipat) ordura arte egindako birmoldaketa taiugabe edo partziala zen. Hori horrela, 1983 eta 1984 urteetan gobernu berria ekonomi eta gizarte kostu handienak eta langatazkarik biziena berekin zekartzaten sektore eta enpresa-talde garrantzitsuenetan administrazio-erabaki axolazkoenak hartuak zeuden: sektore eta enpresa-talde hauen etorkizuneko egitura zirriborratua, plantilen doikuntza neurri handi batetan egina eta finantz osasunketa oso aurreratua. Horrez geroztik birmoldaketa amaitzen ez bada ere, tratamendu honen gaia diren sektoreen izaera aldatzen da, ekonomi

eta gizarte-kostua txikiago izaten da eta administrazioaren eskusartze-maila eta lehenengotasuna apalago egiten da. Ez dira aienatzen birmoldaketaren alderdi txarrak, baina hauen ondoan onak ere azaltzen hasten dira: inbertsioak, ekoizkin eta ekoizpide berriak, Presazko Birindustrialtzeko Lurraldeak, etab. Bestalde, Industri eta Energi Ministraritzaren barruan teknologiarekin zerikusia duten politikei lehentasuna ematen zaie.

1.1. Politika ekonomiko eta industrial.

Gobernu berriak aplikaturiko politika makroekonomikoa gaitzesgarria ez izan arren, egiteke zirauten funtsezko erreforma batzuri dagokionez (lan-merkatuarena, Gizarte-Segurantzarena, finantz sistemarena...) oso epel edo/eta berandu jokatu du, horren ondorioak ments publikoan, korritu-tasetan, langabezi tasan eta abarretan nabaritu direlarik. Industri politikan, teknologiaren kontuan, uka ezinezko bultzada soma daiteke, baina gobernuak ez du ondu Industri Egitarau Orokorrik eta hori industri politikako alor ezberdinen arteko elkarlotze edo mihizatze ezean eta alor hauetako batzuren utzikerian (a.b., enpresa txiki eta ertainekiko politika eta enpresen egituraz eta kontzentrazioaz ari dena) isladatu da. Industri eta birmoldaketa-politiken artean ere elkarjoketa eza begibistakoa izan da. Bestela sinestarazi balezakete ere,

Industri Birmoldaketako Legearen (IBLaren) barman sartzen diren berrikuntza teknologikoaren eragintzako artikuluak ez daude birmoldaketa-prozesuei egiazki lotuak eta lege honen «apaintzea» besterik ez dute xedetzat.

Badaude ezin isilduzko aurrerapenak ere: birmoldaketa-prozesuaren estaldurari begira eratutako Presazko Birrindustrialtzeko Lurraldeak adibidez. Birmoldaketaren ihardunbideak berak, bai antolatzen diren erabide berriengatik (Enplegu-Eragintzako Fondoak esaterako) bai egiten diren inbertsio eta finantz osasunketengatik, aurreko ekitaldian baino ondorio birrindustrialtzaila gehiago sortera du. Baina oro har, birmoldaketaren aldean birrindustrialkuntza baztertu egin dela erraz ohartzen da.

1.2. Zein sektore edo enpresa-talderi aplikatu birmoldaketa.

Gobernua eskuratu aurretik, PSOEk behin eta berriz adierazi zuen edozein industri eta birmoldaketa-neurri hartu baino lehen, iritsi nahi zen horizonte industrial, hots desiragarri eta inguragarri zen industri egitura, mugatu eta zehaztu behar zela, eta eginbide horretan langileen eta enpresari ordezkariek eskuhartzea guztiz beharrezko zela. Haren orduko eritzien arabera, lehen lehenik Industriako Plan Nazional batean krisian zeuden sektoreen tratamenduari buruzko lehentasunak eta aldiko aurrakustapenak zehaztu egin behar ziren, eta horren ondoren, bakarrik, sektore bakoitzeko birmoldaketa-planen egintza eta onartzeari ekin. Bere birmoldaketa-legean, ordea, hori guztia ahanzi zen eta sektore edo enpresa-talde bat birmoldaketan ipintzeko kinka larrian egotea eta bere zuzperdura interes orokorreko jotzea aski zela erabaki zen.

Zein sektore edo enpresa-talderi lagundu zitzaion?

— Lehendabizi estrategikotzat jo zirenei: siderurgia, unzigintza, elektrotresnak eta ongarriak. Sektore hauetan isuri ziren gobernuaren ahalegin eta baliabide gehienak eta hauetan izan zen nabari administrazioaren lehenengotasuna edo protagonismoa.

— Bigarrenik, aurreko gobernuen birmoldatuak hasiak egon arren, eragabeki edo partzialki izan zirenei:

automozioiko ekipamendu elektrikoa (FEMSA eta ROBERT BOSCH), STANDARD-ITT taldea, altzairu arrunta osagabea eta TALBOT-CITROEN taldea (1). Sektore edo enpresa-talde hauetan administrazioaren lehenengotasuna ez zen hain nabarmena izan eta askotan aurkezten zitzaizkion planak oso erizpide zorrotzez epaitzera mugatzen zen.

— Hirugarren sail batetan sar litezke estrategikotzat joak ez izanez, nolabaiteko sendabide sektoriala behar zuten sektore berriak. Zernolako sendabiderik? Hasieran «birmoldaketa» hitza erabili zuen gobernuak, gero «tajuketa», ondoren «eragintza» ... Garbi zegoen sail honetako sektoreetan IBLan zeuden neurri bakan batzuek ez ziratekeela aplikatu eta laguntzak askoz ere apalagoak izan ziratekeela. Honako hauek dira sail honetan barneratuak izateko gehien aipatu ziren sektoreak: harraminta-makina, motozikletak, papergintza, burdinaleazioak, eta ekipamendu mekanikoko ondasunak. Hala ere, azkenean, baliabide ezagatik, estrategikoak ez izateagatik edo tajuzko planak ez aurkezteagatik, gehienak laguntzarik gabe gelditu dira eta hauek eman direnetan (harraminta-makina eta motozikletak) txit urriak izan dira.

Derragun puntu honekin amaitzeko, PSOEk lehen aldeztu zuen Industriako Plan Nazionala ez zela mugatu behar birmoldatzeko ziren sektoreak jaso edo zehaztera; eginkizun horrez gainera, eta birmoldatzeko sektoreen ondoan, promozionatu edo eragin beharreko sektoreez ere ihardungo zuen. Asmo on hauek guztiak, ordea, behin gobernura iritsi eta gero bazter utzi dira.

1.3. Planen egintza, onarpena, egipidea eta kontrol eta jarraitzea.

Gobernura heldu aurretik aldeztu ziren jarrerak berriz ere bazterturik, birmoldaketa-planak negoziatua izan behar duela, baina ez nahitaez adostua, agintzen du IBLak: planari buruzko

(1) PIHER taldea eta ekipamendu elektrikoko ondasunen sektorea ere (non besteren artean GEE eta WESTINGHOUSE bait daude) lagunduak izango zirela zirudien, baina enpresek aurkezturiko planak ez ditu gobernuak askietsi eta bir-birmoldaketa horretako laguntzak «izoztu» egin dira.

abenikoa lortua ez izan arren, gobernuak horrela gura izatekotan, sektorea edo enpresa-taldea birmoldaketan jar dezake. Gobernuaren eskuetan uzten da, berebat, aldarrikapenaren ekimena (hots, zein sektore edo enpresa-talde birmoldaketan sar daitekeen erabakitzea) eta birmoldaketako planen lehen zirriborroaren egintza. Ekitaldi honetan ondu diren planak, aurrekoak baino zorrotz eta artezagoak izan dira.

Lehengo birmoldaketetan aurkitutako akats batzu zuzentzearen (izapidatze geldo eta korapilatsua, laguntzen egipide kaskar eta kontrolgabea, enpresa-kontzentrazioari aurreko Batzorde Beterazleen ordez, altzairu berezietako sektorean ongi samar ibilitako formula bat, birmoldaketa-elkartea, bultzatu nahi izan da (2). Erakunde honetan administrazioa eta enpresak bakarrik daude ordezkatuak, langileak ez, eta lehenengoak birmoldaketa-ketaren emaitzetan eragina izan lezaketen erabakien kontrola bere eskuetan gordetzen du.

Lehengo IBLan ez bezela, oraingoan Kontrol eta Jarraitze-Batzordeen sorrera birmoldaketan jartzen diren sektore guztietan derrigorrezkoa da. Batzorde honetan administrazioa, ugazaberia eta sindikatuak ordezkatuak egon daitezke. Horretarako, ordea, birmoldaketa-plana baiestea galdatzen zaie lehenago, derrigorrezko baldintzat.

Nire irudiz, ataltxo honetan agerturiko erabideak (planen egikera, onarkera, birmoldaketa-elkartek...) egoki samarrak dira eta, oro har, emaitza onak eskaintzen ari dira. Agian punturik eztabaidagarrienak Egipide-Elkartetariko sindikatuen baztertzea eta Jarraitze-Batzordean eskuhartu ahal izateko birmoldaketa-planari baietz esan beharra izango lirarteke.

1.4. Zerga eta finantz neurriak.

UCDeko gobernuak itxuratutako IBLan zergarinketa eta kenketa ugari zegoen. Garai hartan oposizioan zegoen alderdi sozialistaren ustez, ordea, neurri fiskal horiek ez ziren inondik ere komenigarriak:

(2) Berau desegokia izan zitekeen kasuetan (a.b. minifundismo handiko sektoreetan) beste formula batzu erabil zitezkeen: gerentzia edo beste enpresa-elkarbide bat.

haien kostua ezagutzea arras zaila zen, ez ziren batere gardenak, kontrol publikoa gutxitzea eramaten edo laguntzen zuten, finantz neurriek baino eraginkortasun gutxiago zuten, erreforma fiskala eragozten zuten... Sozialisten orduko eritziz, hobe zen hainbeste alderdi txar ez zuten beste neurri batzu erabiltzea, esaterako enpresek zergez ordaindutakoa gero subentzio baten bidez itzultzea. Behin gobernura iritsi eta gero, halabaina, arrazoizko kritika hauek bertan behera laga dira eta IBL berrian neurri fiskal horiek berak, ia batere aldakuntzarik gabe, ezarri dira.

Funtsezko aldaketak finantz neurrietan gertatu dira: alde batetik beste herrialdeetatik jasotako figura bat, mailegu eskuhartzailea, IBL berrian sartu bait da; bestetik, banku pribatuei baliabide-ekarpenak egin ditzaten inbertsio-azpikoefiziente bat ezarri bait zaie. Azpikoefiziente horretan bankuek birmoldaketako enpresentzat emandako maileguak eta birmoldaketa finantziatzeko kreditu Industrialeko Bankuak jaulkitako zedulen harpidetza konputatzen dira. Zedula hauen korritu-tasa eskuarki mailegu eskuhartzaileena baino askoz apalagoa izan arren, bankuek nahiago izan dute zedulak harpidetu mailegu eskuhartzaileak eman baino, enpresa birmoldatuen etorkizuneko bideragarritasunaz fido ez izanik. Oro har, finantz neurrien alorrean egondako bi aldaketa hauek, positibotzat jo behar dira.

Egon dira finantz neurrietan beste aldaketatxo batzu ere (burtsan kotizatzen duten enpresei aplikagarriak) baina axola gutxiagokoak eta hemen aztertzerik ez ditugunak. Derragun, halaber, nahiz eta zerga edo finantz neurriak ez izan, birmoldatzen ari diren sektoreetako enpresen bategiteak eta hitzarmenak errazteko, eta sektore horietan ezarkuntza, zabalkuntza eta lekuzaldaketa kontrolatzeko IBLan beste artikulu batzu ageri direla.

1.5. Neurri soziolaboralak.

Soberazko lanindarra gutxitzeko IBL berrian agertutako arauak UCDeko gobernuen legean zeudenen antzekoak dira. Izan ere, nahiz eta Industri eta Energi ministroen nahia izan IBLan enplegu-gutxitzeei zegokienean «hausketa» formula erabiltzea,

azkenean, sindikatuen borrokengatik, aurreko legean bezalaxe, gutxitze horrek hartuko zuen itxura, «hausketa» edo «etenketa» alegia, birmoldaketa-plan bakoitzean ikusiko zela erabaki zen. Plan sektorial gehienetan, 55 urte baino gutxiago izanik, Enplegu-Eragintzako Fondoetan (EEFetan) sartzea onartu duten langileentzat «etenketa» erabili da, eta gainerakoentzat «hausketa».

Langileei ematen zaizkien gizarte-kontrapartiden alorrean, berriz, garrantzizko aldaketak egon dira: lehenik, desenplegu-prestazioaren ezohizko hedaldia ahalbidetzen da (hots, kontagailua zeron jartzea deritzana); bigarrenik, 55 urte baino gehiagoko langileentzat alde aurretiko jubilazioetara jo ahal izateko bidea ezartzen da; eta azkenik, EEFak sortzen dira. Fondo hauekin bilatzen dena hauxe da: kanporatutako langileen prestazioak hobetzea, langile horien lanbide-hezkuntza berri edo osatzea eta langileak iraitzeko indemnizazio edo kalteordainetan xahutu ohi zena enplegu berriaren eragintzan erabiltzea (horretarako kalteordain hori Fondoko langileak alokatzen dituenari ematen zaio, langileei eman ordez). Figura berri hau, hots EEFa, ez da guztiz biribila eta zenbait huts edo akats azaltzen du: Fondoetako langileen birralokapenak ez dira uste bezain handiak izan; EEFtan aurkitzen ez diren langabeak birralokatzeko unean diskriminatuak daude; langileen batasuna hausten da; EEFen bidez egiazki lortzen den lan-osasunetaren kostu-murrizketa hutsaren hurrengoa da, plantilagehiegitzen irteera nagusia alde aurretiko jubilazio eta antzeko bidez burutzen bait da; EEFen filosofía gehiago datza birralokapenean birrindustrialakuntzan baino;... Baina, hala ere, ezin ukatuzko aurrerapena da lehenago erabiltzen zen erabidearen aldean.

PSOE gobernura iristek ez du horrenbeste handitu, ez behinik behin harén aurreko salo eta proiektuek pentsaraz lezaketan bezala, birmoldaketari buruzko kontzertatze-maila eta sindikatuen eskuhartzea. Dagoeneko azalduak ditugu gai honi loturik zenbait alorrean gobernu berriak egindako atzeko aurreratzeak: Industriako Plan Nazionalaren egintza eta kontzertapenari dagokiona, birmoldaketa-planen kontzertatu-premiari buruzkoa, e.a. Egia da, aurreko ekitaldietan ez bezala, IBLa eta planak sindikatuekin negoziatzeko

saio batzu egin zirela; baina egon ziren beste jokaera batzu CC.OO. baztertzea eta bere ordezkaria negoziazio-mahaiatik botatzea, Industri eta Energi ministroari komunikabideei egindako adierazpen eta aldarrikapenak negoziatzeko giroa guztiz txartu zuten eta erdietsitako emaitzak ez ziren batere gogobetegarriak izan. Dena dela, 1984eko otsailaren azken aldean UGT eta gobernua hitzarmen batetara heldu bide ziren eta horrez geroztik sindikatu honek berealdiko ahaleginak egin ditu ordura arte oso bizia zen lan-gatazkatasunaren maila jaitsi erazten eta untzigintzaren birmoldaketa ahalbidetzen.

Birmoldaketa erakundeetan sindikatuek duten eskuhartze urriaz lehenago aritu gara. Gogora ditzagun, ordea, kritikagarri izan litezkeen baztertze horietako batzu: Egipide-Elkarteetan batere eskuhartzerik ez edukitzea; Presazko Birrindustrialtzeko Lurraldeetako zeharkakoa eta boto emateko eskubiderik gabekoa izatea; eta Jarraitze-Batzordeetan eta Enplegu-Eragintzako Fondoetan egon ahal izateko birmoldaketa-plana derrigorrez baiezte.

1.6. Birmoldaketaren kostua.

Birmoldaketa burutzeko PSOEko gobernuak aurrekoak baino finantz ahalegin zinezkoagoa egin du. Birmoldaketaren finantz beharrianaz argitaratutako datuak 1. laukian daude. Finantzaketa horretarako sektore publikoak eskainitako baliabide edo laguntzak, ordea, ez dago osotara ezagutzerik: Industri eta Energi Ministroaritzaren subentzioak, Kreditu Industrialeko Bankuaren kreditu eta abalak eta INlren ekarpenak 2., 3. eta 4. laukietan jasotzen dira. Eta lan-doikuntzaren kostuaz ezagutzen diren datu bakarrak 5. eta 6. laukietan. Beste hainbat lagunbideri buruz, adibidez, Hazienda eta Gizarte-Segurantzarekiko zorren geroratzeaz, zergarinketa eta kenketen gastu fiskalaz, kreditu ofizial birfinantziatuaz... ez da daturik argitaratu.

1.7. Birmoldaketaren balantzea.

Salmentei, finantza eta lan-kostuei, ekoiz-kortasunari eta cash-flowari buruz azaldu diren datuak 7. eta 8. laukietan ematen ditugu. Horiek horrela direla, administrazioaren ustez positibotzat

1. taula. **Industri birmoldaketaren finantz beharrianak.**

(1983ko miloi pta. (1))

ADIGAIA	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1984-90
1. IBILGETUKO INBERTSIOAK	127.000	153.022	147.769	61.588	34.750	12.000	12.000	548.129
2. ZIRKULATZAILEKO INBERTSIOAK	13.233	9.178	14.210	9.419	12.974	1.400	1.400	61.814
3. FINANTZ OSASUNKETA	111.387	115.852	124.068	101.650	90.541	12.010	9.750	565.258
3.1. Hornitzaileen zorren gutxipena	13.391	9.662	5.323	3.495	3.495	—	—	35.817
3.2. Abal publiko gabeko kreditu pribatu- tuen gutxipena	38.271	38.145	21.016	9.095	8.641	5.010	3.150	123.328
3.3. Abal publikodun kreditu pribatu- gutxipena	30.439	39.101	52.350	47.012	45.578	2.500	2.500	219.480
3.4. Kreditu publikoen gutxipena (KIB, IN,...)	22.225	15.187	21.884	22.748	28.704	4.500	4.100	119.348
3.5. Zor publikoen gutxipena (Hazienda eta Gizarte-Segurantzaren)	7.061	13.757	23.495	18.850	4.122	—	—	67.285
4. LAN-OSASUNKETA (sektorearentzako kostua)	43.235	18.026	15.654	4.396	6.600	970	550	89.431
FINANTZ BEHARRIZAN GUZTIAK (1 + 2 + 3 + 4)	294.855	296.078	301.701	177.053	144.865	26.380	23.700	1.264.632

(1) Siderurgia osatua, altzairu bereziak, altzairu arrunta osagabea, untzigintza, hilara zuriko elektrotresnak, ohiagintza-jantzigintza-zuntz kimikoak, automozioeko ekipamendu elektrikoak, ongarririak, paper-orea, osagai elektronikoak, kontsumoko elektronika eta telekomunikazioak barne daude. Beharrian hauetan ez dira kontutan hartu gehiegizko langileen aparteko prestazioak eta Gizarte-Segurantzaren kuoten gabetzea. Eta nire ustez, ezta beste zenbait neurri ere (kreditu ofizialaren birfinantzapena, Hazienda eta Gizarte-Segurantzarekiko zorraren gerorapena, gastu fiskala, e.a.)

Iturria: Industri eta Energi Ministeritza.

2. taula. **Industri eta energi ministraritzaren subentzioak**

(Milioi pta.)

SEKTOREAK	EGINBEHARRAK-ORDAINKETAK				GEROKO EGINBEHARRAK		
	1982	1983	1984	1985	1986	1987	1987
Untzigtza (untziola handiak)	—	—	—	—	—	—	—
Untzigtza (untziola txiki eta ertainak)	658	379	515	6.150	—	—	—
Siderurgia osatua	4.999	12.501	12.500	23.483	11.602	—	10.132
Altzairu bereziak	2.000	2.000	4.000	4.852	4.096	—	—
Altzairu arruntak	3.200	1.650	1.600	—	—	—	—
Hilara zuriko elektrotresnak	1.495	2.377	3.142	3.000	4.000	—	—
Osagai elektronikoak	431	284	777	724	—	—	—
Automozioko ekipamendu elektrikoa	—	1.690	1.678	620	198	—	—
Kobreko Erdieraldatuak	1.022	98	72	—	—	—	—
Arozgintza astuna	—	717	89	34	—	—	—
Ohialgintza	7.451	5.868	3.676	3.001	206	—	—
E.R.T.	—	—	2.000	4.339	1.332	—	1.440
Asturiana del Zinc	92	168	137	60	26	—	18
Standard-ITT	—	—	—	500	500	—	200
GUZTIRA	21.348	27.732	30.186	46.793	21.960	11.790	11.790

Iturria: Industri eta Energi Ministraritza: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas», 1985.

3. taula. Kreditu industrialeko bankuaren kreditu eta abalak birmoldaketako sektoreei

(Milioi pta.)

SEKTOREAK	Kreditu eta abal erabiliak (1984-12-31 arte)	AURRIKUSIAK (1985-1987)	
		Kreditu eta abalak	Kreditu eskuhartzaileak
Untzigtza	300	7.850	2.000
Siderurgia Osatua	37.002	50.300	20.500
Altzairu Bereziak	6.092	9.873	21.453
Altzairu Arrunta	10.890	—	—
H.Z. Elektresnak	6.777	15.000	15.000
Osagai Elektronikoak	2.395	1.445	400
Automozio Ek. Elektr.	7.938	1.111	—
Kobreko Erdierlatuak	3.875	—	—
Arozgintza Astuna	1.250	—	—
Ohialgintza	9.923	16.255	—
Asturlana del Zinc	1.000	—	—
Ongarriak	—	10.200	—
Beste sektoreak	—	6.000	—
DENERA	87.442	118.045	59.353

Iturria: Industri eta Energi Ministeritza: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas», 1985.

4. taula. INI eta industri birmoldaketa

SEKTOREAK	INIren kreditu eta abalak			INIren kapital-zabalkuntzak			INIren galera-birjarpenak		
	1984	1985	1986	1984	1985	1986	1984	1985	1986
Siderurgia Osatua	20.900	25.400	29.500	13.000	45.700	39.700	33.200	24.500	25.600
Untzigtintza (burniola handiak)	33.500	---	5.000	19.200	14.800	---	35.600	44.700	17.000
Untzigtintza (burniola txiki eta ertainak)	5.600	1.500	1.200	2.500	2.200	---	3.000	5.800	2.500
Ongarriak	---	---	---	1.100	1.200	---	---	---	---
DENERA	60.000	26.900	35.700	35.800	63.900	39.700	71.800	75.000	45.100

Iturria: Industri eta Energi Ministerioaren (Ekonomia eta Haziendako Ministerioaren «Programa Económico a Medio Plazo 1984/87: reformas estructurales e institucionales» liburuan agertua).

5. taula. Lan-dokuntzarako beharrezko baliabideak 1984-1994 urteetan

(Milioi pta.)

SEKTOREAK	BALIABIDE PUBLIKOAK			ENPRESEN EKARPENAK			ENPLEGU-ERAGINTZAKO FONDOEN MENTSA			BALIABIDE GUZTIAK	
	Kontagailua zehaztzea	Aldez aurretiko jabilazioak	INEMen prestazioak	DENERA	Aldez aurretiko jabilazioak	Kalteordaina eta antzeko ekarpenak	DENERA	Estalduraren kostuosoa	Norberaren bideen korritzen soretza		MENTSATA
Siderurgia Osatua	—	29.183	11.462	40.645	14.124	1.788	15.912	27.492	8.937	18.555	75.112
— AHMren kasua: inoizkako langileak eta beste enpresak	544	37	702	1.283	5	—	5	464	—	464	1.752
Untzigtza	13.472	21.575	18.224	53.541	3.865	12.414	16.270	34.677	11.493	23.184	92.995
Hilara Zuriko elektrotresnak	2.803	4.305	7.478	14.587	710	5.050	5.760	6.807	2.803	4.004	24.351
Altzairu Berezia	552	3.768	3.451	7.771	244	852	1.096	9.223	1.791	7.432	16.299
— Aitzinako expedienteak	1.399	357	—	1.756	—	885	885	1267	433	834	3.445
DENERA	—	—	—	119.583	—	—	39.928	—	—	54.473	213.954

Iturria: 1984eko Abuztuaren 8, 10 eta 11n «El Diario Vasco»n agerturiko datuak. Administrazioak 1984eko uztailaren azken aldean egindako ikerketa batetik hartuak (oharra: zenbait kasutan adierazitako guztizkoak ez datoz bat haien artean).

6. taula. Birmoldaketaren lan-kostuak lau sektoretan (1)

SEKTOREAK	1984	1985	1986	1987	GUZTIRA 1984-87
Baliabide publikoak (2)	13.710	26.051	18.334	13.374	71.469
Baliabide pribatuak	7.449	13.155	15.221	9.451	45.276
— Enpresak (3)	5.919	9.166	9.467	4.275	28.827
— Enplegu-Eragintzako Fondoak	1.530	3.989	5.754	5.176	16.449
DENERA	21.159	39.206	33.555	22.825	116.745

(1) Siderurgia osatua, altzairu bereziak, untzigintza eta elektrarresnak.

(2) Aldez aurretiko jubilaziotetatik eratorritako pentsioak. EEFen mentesak eta INEMen prestazioak (kontagailua zeron jartzeagatikoa gastua barne).

(3) Aldez aurretiko jubilaziotetako eta EEFetako langileen birralokapen-kalteordainetako enpresen ekarpenak.

Iturria: Industri eta Energi Ministeritza eta Lan-Ministeritza (Ekonomi eta Haziendako Ministeritzaren «Programa Económico a Medio Plazo 1984/87: Reformas Estructurales e Institucionales» liburutik hartua).

jo behar da azken urteetako birmoldaketa-prozesuaren balantze orokorra, nahiz eta oraindik asko gelditu Europako Elkarte Ekonomikoan sektore horiek duten lehiagarritasuna iristeko. Plantilla-doikuntzek, finantz osasunketek eta inbertsioek zerikusi handia izan dute hobekuntza horretan: plantilak egokitzeko prozesua oso aurreratua dago (ik. 9. laukia), eta antzeko gauza bat esan daiteke finantz osasunketaz; inbertsio gehienak 1984eko bukaeran oraindik egiteke zeuden, baina urte horrez geroztik abiarazi egin dira (ik. 10. laukia).

Administrazioak bere txostenetan azaltzen duen irudi hau, alabaina, baikorregia da nire ustez. Salmenten handitzean (eta honi lotuak dauden adierazleetan: cash-flow, kostuak eta ekoizkortasuna) prezioen igoerak zerikusi handia izan du, eta ez lehiagarritasunak bakarrik, eta geroari begira ezin daiteke espero igotzen jarraitzerik (3). Ekoizpen eta merkatal egituren birrantsolaketak ez da behar bezain bortitza izan, eta sektore batzutan soilik gertatu da (altzairu berezietan, elektratresnetan eta automozioeko ekipamendu elektrikoan). Eta iharduera eta teknologia berrien eragintzaz beste horrenbeste esan liteke.

2. ADMINISTRAZIO ZENTRALAK ONARTURIKO BIRMOLDAKETA-PLANEN ERAGINA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAN.

Asturias eta Euskal Herriko Komunitate Autonomoa (EHKAA) izan dira birmoldaketa dela kausa, enplegu-doikuntzarik gogorrenak jasan dituzten komunitate autonomoak (ik. 11. laukia). Eskuarki birmoldaketak sortertzen duen lanpostu-galerak langabezia osoarekiko ehuneko txikia iritsi ohi du. Espainiaren kasuan horrelako zerbait gertatzen da.

(3) Salmenten eta ekoizkortasunaren bilakaera pezetatan neurtu ordez, termino fisikotan neurtuko balira, beste irudi bat jalgiko litzateke. Hau oso garbi dago, adibidez, siderurgia osatuan; sektore honetan 1981 urteaz geroztik egondako prezio igoerek, espainiar prezioak EEEan daudenez gainetik jarri dituzte, eta hain zuzen horri zor zaizkio, beste arrazoiren artean, aurrean gertaturiko inportazio siderurgiko eskergak.

Asturiasen eta EHKAan, ordea, ehuneko hori ez da horren apala eta are gutxiago litzateke, baldin eta birmoldaketa-planetan sartuta dauden enpresen zerbitzuan lanean aritzen diren enpresa laguntzaileetako lanpostu-galera ere aintzakotzat hartuko balitz. Birmoldaketa n aldarrikatutako sektoreei berealdiko garrantzi eta eragina dute di komunitate autonomo hauetan. Ez luke, bada, batere harrigarria izan behar, sektore publikoak birmoldaketa finantziatzeko emandako baliabide edo languntza ugarietatik puska handi bat komunitate autonomo hauetara zuzendua izateak. Egitez, EHKAan gobernu zentralak duen Ordezkaritzaren arabera birmoldaketari laguntzeko gure komunitate autonomora etorriko diren baliabideek 300.000 M. pta. ko kopurua gaudituko dute (ik. 12., 13. eta 14. laukiak).

Kopuru horren gainean, ordea, eztabaida piztu zen. Administrazio Zentraletik iskilu gisa erabili izan da kopuru hori, gobernu zentralak EHKAaren alde berebiziko ahalegina egiten ari dela erakustearren. Asmo horrekin, EHKAko biztanleriak eta jasotako laguntzek Espainia osokoekiko suposatzen duten ehunekoak (%6 eta %27 gutxi gorabehera hurrenez hurren) behin baino gehiagotan alderatu izan dira. Eusko Jaurkitzak eta birmoldaketako euskal enpresak, ostera, 1984ean datu horiek argitaratu zirenean nahiko mesfidati agertu ziren eta Estatuaren laguntzak txikiagoak zireia, 300.000 M. pta. horietatik artean oso gutxi iritsia zela eta eskuratutako guztia Bayon-en IBLari, eta ez PSOEko gobernuarenari, zor zitzaioala argudiatu zuten. «Sozialistek hain ongi neurtuta badituzte laguntza horiek, zergatik ez dituzte zehazten beren norakoak eta noizkoak?» eransten zuten.

Orain dela gutxi gobernu zentralaren ordezkaritzak argitaratu dituen datuak askoz ere osoago eta biribilagoak izan dira, eta ez dute horrenbesteko mesfindantzarik sortu. Areago, Estatuaren ekarpenak neurtzerakoan subentzioak, kredituak eta abalak bakarrik kontutan hartu direnez gero, laguntzen egiazko hainbatekoa minusbaloratu dela baieztatu daiteke, zeren eta beste zenbait neurriren kostua (a.b. zergarinketa eta kenketen gastu fiskala, Gizarte-Segurantzarekiko zorren geroratzeak, lan-neurri batzuren kostua, ...) ez bait da aintzakotzat hartu.

7. taula. Birmoldaketako sektoreen salmentak, esportazioak eta cash-flow

SEKTOREAK	SALMENTAK				
	EBOLUZIOA				HELBURUA
	1981	1982	1983	1984	
H. Z. Elektratresnak	72.342	89.460	96.935	110.351	122.000(87)
Altzairu bereziak (1)	41.880	54.431	58.868	65.862	80.684(87)
Siderurgia osatua	202.608	235.855	262.701	310.955	522.914(90)
Ohialgintza	317.125	—	—	416.874	—
Automozioiko Ek. Eleckt.	22.431	24.989	29.306	33.701	40.968(85)
Untziola handiak	58.444	82.373	77.161	37.231	147.694(87)
Untziola txiki eta ert.	48.013	60.424	—	28.000	74.500(87)
Kobre	10.077	11.681	12.310	12.830	16.958(85)
Osagai elektronikoak	9.828	10.224	12.817	14.693	—
Altzairu arrunta	67.594	—	—	113.182	—
Arozgintza astuna	4.506	4.802	6.123	7.007	—
E.R.T.	—	174.206	187.836	218.176	235.020(85)
Asturiana del Zinc	16.318	18.312	25.586	—	—

(1) Aceriales-ko enpresak (BWE kanpo).

(2) Subentzioak eta zergak baino lehen.

Oharra: «HELBURUA» zutabearen parentesi artean agertzen diren zenbakiak, xedea zein urtetan aurrikusten den iristea adierazten dute.

Iturria: Industri eta Energi Ministraritza: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas».

8. taula. Birmoldaketako sektoreen finantz eta langile-kostuak eta ekoizkortasuna

SEKTOREAK	LANGILE-KOSTUAK (Salmentekiko %)				
	EBOLUZIOA				HELBURUA
	1981	1982	1983	1984	
H. Z. Elektratresnak	30,0	26,0	29,9	24,4	17,2(87)
Altzairu Bereziak	36,4	26,5	25,7	22,6	16,4(87)
Siderurgia Osatua	32,2	30,1	28,8	25,7	16,2(90)
Ohialgintza	31,1	—	—	29,0	—
Automozioiko ekip. elek.	44,2	41,3	27,5	33,7	29,5(85)
Burniola handiak	54,5	40,6	55,3	85,4	36,9(87)
Burniola txiki eta ert.	38,4	34,5	—	18,2	16,9(87)
Kobrezko erdieraldatuak	67,0	58,0	56,0	56,0	24,0(85)
Osagai elektronikoak	47,3	46,7	41,6	—	—
Altzairu Arrunta	19,4	—	—	13,6	—
Arozgintza Astuna	29,9	30,2	23,5	20,6	—
E.R.T.	—	11,7	11,5	10,4	10,0(85)
Asturiana del Zinc	14,2	13,4	16,6	—	—

Oharra: «HELBURUA» zutabearen parentesi artean agertzen diren zenbakiak, xedea zein urtetan aurrikustenden iristea adierazten dute.

Iturria: Industri eta Energi Ministraritza: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas». 1985.

(Milioi pta.)

ESPORTAZIOAK					CASH-FLOW (2)				
EBOLUZIOA				HELBURUA	EBOLUZIOA				HELBURUA
1981	1982	1983	1984		1981	1982	1983	1984	
19.722	20.202	21.317	24.317	30.000(87)	-6.649	-2.978	-3.046	-3.299	4.200(87)
17.188	24.751	29.086	33.712	39.318(87)	-4.815	-1.340	-1.381	-938	4.800(87)
65.381	58.145	80.070	93.444	113.699(90)	-35.258	-32.466	-38.020	-35.997	52.787(90)
33.789	—	—	54.328	—	8.528	—	—	25.944	—
5.943	7.026	8.270	11.591	14.843(85)	-4.449	-4.857	-2.596	-1.022	1.791(85)
23.341	55.682	63.847	30.521	68.489(87)	-23.972	-22.669	-50.035	-45.483	8.238(87)
—	—	—	—	—	-3.300	-5.500	—	-5.950	4.260(87)
1.062	1.117	1.189	1.624	1.503	-2.713	-1.849	-981	-232	2.749(85)
3.385	3.710	5.749	8.166	—	—	-1.222	-12	835	—
32.384	—	—	64.088	—	-5.842	—	—	-4.230	—
936	1.118	969	1.604	1.503	-420	-530	-64	-351	—
—	20.314	27.749	38.193	46.714	—	-38.899	-12.753	-7.740	4.820(85)
7.516	9.124	11.360	—	—	1.232	1.123	2.606	—	—

FINANTZ KOSTUA (Salmentekiko %)					EKOIZKORTASUNA (Salmentak/Langile)				
EBOLUZIOA				HELBURUA	EBOLUZIOA				HELBURUA
1981	1982	1983	1984		1981	1982	1983	1984	
11,6	9,8	9,5	7,5	6,0(87)	3,2	4,3	5,5	6,9	9,5(87)
8,5	5,0	4,4	4,1	4,0(87)	3,6	6,5	7,2	8,7	1,6(87)
17,9	20,2	13,9	16,1	10,1(90)	5,1	6,1	7,3	9,2	20,0(90)
7,0	—	—	8,0	—	—	—	—	—	—
11,5	16,1	8,2	5,9	6,1(85)	3,1	3,3	4,6	6,0	7,6(85)
18,8	17,6	23,3	40,1	7,5(87)	1,9	3,5	3,1	2,3	9,2(87)
9,4	8,4	—	17,1	4,7(87)	3,0	3,4	—	1,7	6,9(87)
32,0	22,0	24,0	24,0	22,0	2,2	2,7	3,0	3,5	4,9(85)
12,1	11,3	9,8	—	—	3,0	3,1	4,2	4,4	5,1(85)
11,3	—	—	9,7	—	4,4	—	—	7,9	—
14,6	14,1	11,2	9,3	—	3,8	3,7	5,9	7,2	—
—	17,9	14,7	11,2	6,9	—	16,2	20,3	25,7	30,2(85)
10,5	7,3	5,5	—	—	5,4	6,9	7,1	—	—

9. taula. Birmoldaketako sektoreetako plantilen eboluzioa

SEKTOREAK	Erreferentzi denboraldia	Enpresen kopurua	Hasierako plantila	Bukaerako plantila aurrikusia	195-03-31ko plantila
Burniola handiak	1984-06-30/1985-12-31	2	24.321 (100)	15.915 (64,2)	15.915 (64,2)
Untziola txiki eta ert.	1984-06-30/1985-12-31	24	16.121 (100)	10.679 (63,9)	10.679 (63,9)
Siderurgia Osatua	1980-12-31/1990-12-31	3	42.837 (100)	26.069 (60,8)	33.495 (78,2)
Altzairu Bereziak	1980-12-31/1987-12-31	11	13.744 (100)	6.919 (50,3)	10.143 (74,0)
H. Z. Elektrotresnak	1980-12-31/1987-12-31	18	23.869 (100)	12.734 (53,3)	15.913 (66,6)
E. R. T.	1983-12-31/1987-12-31	10	10.800 (100)	8.594 (79,5)	9.880 (91,4)
Ohialgintza (1)	1981-12-31/1985-12-31	430	85.710 (100)	79.700 (91,8)	80.257 (92,4)
Standard-ITT	1983-12-31/1986-12-31	2	16.681 (100)	13.500 (80,9)	16.087 (96,4)
Automozioko ekip. elek.	1981-12-31/1985-12-31	2	6.720 (100)	5.378 (80,0)	5.585 (83,1)
Osagai elektronikoak	1981-12-31/1985-12-31	17	3.697 (100)	2.923 (79,0)	3.298 (89,2)
Kobreko erdialdatuak	1981-12-31/1985-12-31	4	4.503 (100)	3.533 (78,4)	3.611 (80,1)
Asturiana del Zinc	1980-12-31/1982-12-31	1	2.843 (100)	2.494 (87,7)	2.494 (87,7)
GUZTIRA		524	242.396 (100)	187.204 (77,2)	207.358 (85,5)

(1) Enpresak planaren babespera sartzeko epea 1985-12-31n amaitzen da. Sektore honetako datuak, 1984-12-31 arte planera babesturiko 430 enpresenak dira.

Iturria: Industri eta Energi Ministeritza: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas». 1985.

10. taula. Birmoldaketako sektoreen inbertsioak

SEKTOREAK	Burutuak (1) (1982-12-31tik 1984-12-31ra arte)	AURRIKUSIAK				DENERA	Hitzartuak edo/eta burutuak 1985-3-31 arte
		(Milioi pta.)					
		1985	1986	1987	1988		
Untzigtza	—	6.035	—	—	10.936	—	
Siderurgia Osatua	10.465	61.905	21.137	3.768	174.103	31.790	
Altz. Bereziak	—	5.550	—	—	21.219	10.000	
Hilara Zuriko Elektresnak (2)	4.960	10.000	8.000	—	25.960	4.960	
E. R. T.	4.500	4.836	—	—	15.741	4.500	
Ohiagintza	54.959	3.710	—	—	88.381	54.959	
Ongarriak	—	13.200	10.000	3.500	32.800	—	
STANDARD-ITT	4.900	4.200	—	—	13.700	4.900	
Osagai Elektron.	1.398	—	—	—	4.468	1.398	
Automoz. Ek. Elek.	7.427	2.320	—	—	12.602	7.247	
Arozgintza Astuna	1.002	—	—	—	1.262	1.002	
Kobreko Erdierald.	2.789	—	—	—	3.532	2.789	
GUZTIRA	92.400	111.756	39.137	7.268	404.704	123.545	

(1) Siderurgia osatua. ERT eta ITTren kasuetan 1984ekoak bakarrik.

(2) Behin-behinekoak.

Iturria: Industri eta Energi Ministerioa: «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas», 1985.

11. taula. Birmoldaketaren enplegu-doikuntzaren erregio-banakuntza

	Aurrikusitako doikuntza osoa	Aurrikusitako doikuntza osoa ehunekotan	Aurrikusitako doikuntza osoa erregio-langa- beziarekiko (ehunekotan) (1)
Asturias	11.960	15,9	22,95
EHKA	18.504	24,6	12,19
Madril	12.303	16,4	6,98
Nafarroa	1.781	2,4	6,42
Kantabria	1.520	2,0	5,71
Galizia	6.506	8,6	5,44
Valentzia	6.561	8,7	2,58
Baleares	960	1,3	2,10
Katalunia	8.809	11,7	1,60
Aragoi	608	0,1	1,16
Errioxa	30	0,0	0,78
Kastila (La Mantxa)	355	0,0	0,59
Kastila (Leon)	210	0,0	0,14
Murtzia	55	0,0	0,12
Andaluzia	5.198	6,9	0,07
Kanarias	255	0,0	0,00
Extremadura	11	0,0	0,00
	75.196	100,0	3,16

(1) Birmoldaketa-planak amaitzean, langabezia 1983-12-31n zegoen berbera jarraituko zela suposatuz.
Iturria: Ministerio de Industria y Energía: «Impacto regional de la reconversión». 1984 Iraitia.

Buka dezagun atal hau. Estatuaren ekarpen horietaz ohar batzu egiten: 1) EHKArri laguntzen %27 badagokio ere, ez da ahantzi behar, birmoldaketa dela-eta galduko diren lanpostuen %25 ere hemen gertatuko dela eta laguntza horien puska handi bat plantilen murrizketa hori egitera zuzentzen dela; 2) EHKArri arteztutako laguntza gehienak kreditu eta abal gisa datoz, hots, gero itzuli beharko diren laguntzak dira (nahiz eta, egia esan, zenbait enpresari emandako kreditu edo abalak berriro itzuliak izateko esperantza gutxi egon) Espainia osorako laguntzen artean bi formula hauek pisu gutxiago duten bitartean (ik. 13. laukia); 3) laguntza horiek nahiko berandu heldu dira, gehienak 1985 urtean; horri zor

bide zaio 1984ean Eusko Jaurlaritzak balizko laguntza horiei buruz agertu zuen mesfidantza; 4) birmoldaketa dela-eta ematen diren baliabide-bidalketak fluxuei buruzko ikerketa zabalago batetan kokatu behar dira (non, esaterako, Kupoaren eta Gizarte-Segurantzaren bidez sortutako fluxuak ere kontutan hartu beharko liriteke); fluxu-iturri bakar baten azterketatik erator daitezkeen emaitzak eta ondorioak nahasgarri eta okerrak izan daitezke; 5) Bizkaia da EHKArri lurraldean artean laguntza gehienak jasotzen dituen (Ik. 14. laukia; gainera, lauki honen arabera Bizkaiari dagokion puska are handiago litzateke, untzigintzari emandako laguntzak ere kontutan hartuko balira).

3. EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAREN ESKUHARTZEA ESTATUAK ALDARRIKATUTAKO BIRMOLDAKETETAN.

Autonomi Estatutuaren 10. artikuluko 30. apartatuak ondoko hau erabakitzen du birmoldaketaren kontuan: «industri sektoreen berregituraketan Euskal Herriari dagokio Estatuak ezarritako planen garapena eta beterezpena». Nola zertu da Estatuak dioena?

UCDKo gobernuak 1981eko ekainean birmoldaketari buruz atera zuen lege-dekretuak ez zuen deus ere esaten gai honetaz. Handik gutxira, horregatio, Gobernu Zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean egondako negoziaketen ondorioz, 3502/1981eko abenduaren 28ko dekretua argitaratu zen, non euskal administrazioari birmoldaketako planen garapen eta beterezpeneko kompetentzia transferitzen bait zitzaion. Dekretu honen erabaki garrantzitsuenak hauexek ziren: a) Administrazio Zentralak EHKAari birmoldaketako planen negoziazio eta egintzaz berri eman behar zion eta honek hari sektore horretaz zituen aurrikustapenez; b) EHKAak Batzorde Beterazleetan ordezkariak izango zituen; d) Jarraitzeko Batzorderik egotekotan, hauetan ere esku hartuko luke; e) planen babespera sartu nahi izango zuten enpresen eskabideak eta informazioa berak bideratuko zituen orobat, haiei buruzko txostenak eta egitarauen kontrol eta jarraipena burutu. Nolanahi ere, eskuhartze hau gerta ahal izateko, nahitaezko baldintza zen birmoldaketan aldarrikatutako sektoreko enplegutik %10 EHKAan egotea. Derragun azkenik, UCDeko gobernuaren birmoldaketan dagokiona amaitzeko, hilabete batzu beranduago, 21/1982ko IBLak komunitate autonomoen eskuhartzea orokorki arautu zuela, aipatutako 3502/1981 eko dekretuaren bidez EHKAarentzat egindako modu antzeko batetan.

PSOE gobernura iritsi ondoren, berriz ere komunitate autonomoen eskuhartzea auzitan jarri zen. Gobernu Zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak, LOAPAzela medio jadanik txarrak baziren, are gaiztoagotu ziren birmoldaketaren inguruan sortutako

liskarregatik. Industri eta Energi ministrariak asaldura bizia piztu zuen euskal komunitate autonomoan aldizkarietan adierazi zuenean «komunitate autonomoek birmoldaketan buruzko erabakitzeetatik at gelditu behar dute» edo «autonomi estatutuek, Administrazio Zentralaren eta Autonomikoen arteko koordinakuntza lortzeko ahalegintzean, ez dute formularik egokiena asmatu». Gobernu Zentralaren eritziz, bestalde, Estatuak aldarrikatutako birmoldaketa sektorialekiko Eusko Jaurlaritzaren jarrera eta jokabideak guztiz anbiguo eta kontraesankorrak ziren eta euskal administrazioaren laguntasun politiko eta ekonomiko urriaz kezu agertzen zen. Gobernu sozialistak birmoldaketako 8/1983ko azaroaren 30eko lege-dekretua atera zuenean, liskar horiek erabat biziagotu ziren: lege-dekretu horretatik berriz ere desagertzen zen, komunitate autonomoek Estatuaren birmoldaketako prozesuetan izan zezaketen eskuhartzeari buruzko aipamen oro.

Komunitate Autonomoen baztertze hori 27/1984eko uztailaren 26ko birmoldaketa-legearen bidez zuzendua izan zen. Euskal parlamentaren irudiz, IBL berrian hitzarmenen bidez ezarri zen erregulazioa gogobetekoa zen eta aurreko legeetan agertzen zena baino onuragarriagoa. Lau izan ziren, funtsean, nazionalisten eta sozialisten artean hitzartutako puntuak: 1) birmoldaketaren izapidatze osoan zehar komunitate autonomoan berri emango zitzaion, eta beronek egipide, garapen eta beterezpeneko erakunde guztietan eskuhartuko zuen; 2) IBLen aldarrikapena administrazio zentralaren eta ukitutako komunitate autonomoaren artean egingo zen; 3) birmoldaketa-planetan hitzartutakoa enpresek nola betetzen zuten, komunitate autonomoak ikusmiratuko zuen; eta 4) Kontzertu Ekonomikoaren kompetentziek kalte gabe eta osorik iraungo zuten. Bestalde, komunitate autonomo ukitutzat kontsideratua izateko lehen zegoen baldintza pixka bat lasaitzen zen: nahiz eta birmoldaketan ipinitako sektoreko enplegu osotik % 10 komunitate autonomoan ez egon, hau ukitutzat joko zen, baldin bere enplegu industrial osotik % 10 sektore horretan baziharduen.

12. taula. Espainiar gobernuaren laguntzak Euskal Komunitate Autonomoko birmoldaketarako*

(Miloia pta.)

SEKTOREAK	EMANDAKO LAGUNTZAK							Laguntza onartuak baina instrumentatu gabe	Erabateko guztizkoa
	U C D		P S O E				Denera (1+2+3+4)		
	(1) 1982-12-31 arte	(2) 1983	(3) 1984	(4) 1985-1-1etik 1985-7-31ra	(2+3+4) 1983-1-1etik 1985-7-31ra				
Siderurgia Osatua	13.483,0	3.875,0	13.199,0	122.173,0	139.274,0	151.757,0	—	152.730,0	
Altzairu bereziak	5.000,0	4.000,0	10.185,0	28.445,4	42.630,4	47.630,4	18.830,8	66.461,2	
Altzairu arrunta	4.000,0	2.850,0	3.600,0	—	6.450,0	1.045,0	10.292,0	20.742,0	
Elektrotresnak	250,0	1.390,0	888,0	1.130,0	3.408,0	3.658,0	15.530,0	17.188,0	
Osagai elektronikoak	355,7	305,0	1.236,8	14,2	1.556,0	1.911,7	1.961,0	3.872,7	
Ohiagintza	—	6,7	508,0	36,0	550,7	550,7	—	514,7	
Kobrea	3.600,0	—	—	—	—	3.600,0	—	3.600,0	
Ekip.-elektrikoko ond.	4.500,0	—	—	—	—	4.500,0	—	4.500,0	
GUZTIRA	31.188,7	12.426,7	29.616,8	151.798,6	193.842,1	225.030,8	44.613,8	269.644,6	

(*) Subentzioak, kreditu arruntak, kreditu eskuhartzaileak eta abalak barne. Ez daude barneraturik utzizintzarako emango diren laguntzak (56.100 milioi pta-tan estimatuak) eta INIK harpidetuko dituen AHVen Kapital-zabalkuntzak (8.000 milioi pta.).

Iturria: Delegación del Gobierno en el País Vasco «1982-1985: El Gobierno del Estado y su gestión en el País Vasco».

13. taula. Espainiar gobernuaren laguntzen banaketa

	EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOA							ESPAINIA (1)	
	U C D 1982-12-31 arte	P S O E			DENERA		DENERA		Banaketa (%)
		1983	1984	1985-1-1etik 1985-7-31ra	1983-1-1etik 1985-7-31ra	Miloi pta.	Banaketa (%)	Miloi pta.	
Subentzioak	12.657,0	9.638,0	11.925,6	29.803,6	42.460,6	18,9	617.950	58,4	
Kredituak	15.648,2	15.811,0	86.543,0	104.240,7	119.888,9	53,3	439.733	41,6	
Abalak	2.833,5	4.167,8	53.330,0	59.797,8	62.631,3	27,8			
DENERA	31.188,7	29.616,8	151.798,6	193.842,1	225.030,8	100,0	1.057.683	100,0	

(1) Lan sektoretako finantzapen publikoak bakarrik kontutan hartzen da: siderurgia osatua (1982/88), altzairu bereziak (1982/86), untzizintza (1982/86) eta elektrotresnak (1982/86). Subentzioei INIren kapital-ekarpenak erantsi zaizkie eta kreditu eta abalen artean INIrenak ere sartu dira.
Iturria: Delegación del Gobierno en el País Vasco «1982-1985: El Gobierno del Estado y su gestión en el País Vasco» eta Ministerio de Industria y Energía. «Informe sobre el proceso de reconversión industrial: balance y perspectivas».

14. taula. Kreditu industrialeko bankuak emandako kreditu eta laguntzak EHKA-ari birmoldaketatik 1982-1985 urteetan

SEKTOREA	ENPRESA	LAGUNBIDEA	KOPURUA (M. pta.)
Ohiagintza Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak	CINCOR ACERIAS DE LLODIO, S.A. ACERIAS DE LLODIO, S.A. FORJAS ALAVESAS	Kreditu arruntak 9 art.ko kreditu Kreditu eskuhartzailea Kreditua	42,7 405,0 11.613,0 2.000,0
	ARABAKO GUZTIA		4.060,7
Ohiagintza Osagai elektronikoak Osagai elektronikoak Osagai elektronikoak Aitzairu arruntak Ohiagintza H. Z. Elektresnak Osagai elektronikoak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak Aitzairu bereziak	HILATURAS DE VERGARA, S.A. BIANCHI, S.A. BIANCHI, S.A. BIANCHI, S.A. UNION CERRAJERA, S.A. BRUNET ORIA, S.A. ULGOR, S.A. FAGOR ELEKTRONIKA, S. KOOP. PEDRO ORBEGOZO Y CIA. PEDRO ORBEGOZO Y CIA. PEDRO ORBEGOZO Y CIA. PEDRO ORBEGOZO Y CIA. PATRICIO ECHEVERRIA VICTORIO LUZURIAGA VICTORIO LUZURIAGA VICTORIO LUZURIAGA	Kreditu arrunta 4. art.ko kreditua Abala Abala Abala Abala Abala 9 art.ko kreditua Kreditu eskuhartzailea Subentzioa Abal publikodun kreditua Kreditu eskuhartzailea Kreditu arrunta Kreditu arrunta	52,0 1.961,0 198,2 911,8 6.500,0 456,0 2.230,0 33,5 506,0 2.015,0 400,0 175,0 1.500,0 1.500,0 1.500,0 293,8
	GIPUZKOAKO GUZTIA		20.232,3

SEKTOREA	ENPRESA	LAGUNBIDEA	KOPURUA (M. pta.)
Banakakoak	G. E. ESPAÑOLA, S.A.	Kreditu arrunta	1.250,0
Banakakoa	WESTINGHOUSE, S.A.	Kreditu arrunta	1.750,0
H. Z. Elektrotresnak	FABRELEC, S.A.	4. artikulua	130,0
Kobre	IBERICA DEL COBRE	Abala	2.800,0
Aitzairu bereziak	S.A. ECHEVARRIA	9. art.ko kreditua	1.619,0
Aitzairu bereziak	S.A. ECHEVARRIA	Kreditu eskuhartzailea	6.449,0
Aitzairu bereziak	OLARRA, S.A.	9 art.ko kreditua	1.655,0
Aitzairu bereziak	OLARRA, S.A.	Kreditu eskuhartzailea	5.630,0
Siderurgia osatua	A.H.V., S.A.	37. art.ko kreditua	19.324,0
Siderurgia osatua	A.H.V., S.A.	Kreditua	50.300,0
Siderurgia osatua	A.H.V., S.A.	Kreditu eskuhartzailea	18.500,0
Siderurgia osatua	A.H.V., S.A.	Abala	46.200,0
Untzigitza	NAVIERA VIZCAINA	Kreditua	65,7
BIZKAIKO GUZTIA			155.672,7
Aitzairu bereziak	ACERIALES, S.A.	Abala	4.000,0
H. Z. Elektrotresnak	GRUVESA	9. art.ko kreditua	700,0
H. Z. Elektrotresnak	GRUVESA	11. art.ko kreditua	4.700,0
H. Z. Elektrotresnak	GRUVESA	9. art.ko subentzioak	1.830,0
H. Z. Elektrotresnak	GRUVESA	Subentzioak	1.000,0
H. Z. Elektrotresnak	GRUVESA	Abal publikodun kreditua	5.300,0
Aitzairu arruntak	UNION CERRAJERA Y NERVACERO	Birfinantzapena	2.500,0
Aitzairu arruntak	UNION CERRAJERA Y NERVACERO	Kreditu eskuhartzailea	4.574,0
Aitzairu arruntak	UNION CERRAJERA Y NERVACERO	Abal publikodun kreditua	1.000,0
Aitzairu arruntak	UNION CERRAJERA Y NERVACERO	Subentzioak	1.643,0
PROBINTZIARATU GABEKO GUZTIA			27.247,0
EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMO OSOA			207.212,7